

## M. U.-k “OrientaUniversia” Unibertsitate Orientabidearen Azokan parte hartuko du

2007/08/05

**Mondragon Unibertsitateak “OrientaUniversia”** Unibertsitate Orientabidearen Azokan parte hartuko du hiru dimentsiotako bere erakustoki propioarekin. Ikasle, guraso eta orientatzailea tresna horretaz baliatuko dira Unibertsitateak bertako ikasle izango direnei eskainiko dizkien zerbitzuak aurkitzeko.



Universia-k, gazteriarekin eta unibertsitate-munduarekin hartutako konpromisoari leial eta beste zenbaitek izandako esperientziek, esaterako, Second Life-k, irekitako bideari jarraiki, OrientaUniversia Azoka (<http://orienta.universia.es>) jarri du martxan, unibertsitatea eta karrera aukeratzeko modu berri eta erakargarria, hain zuzen ere.

Gaurko gazteak ohituta daude behar duten informazioa eskuratzeko on line tresnak erabiltzen. Universia-k Enplegu eta Prestakuntzaren Azoka Birtualarekin egin zuen gisan, interesatuen eskuragarri jartzen du unibertsitateko campus bat simulatuko duen espazio birtuala, ikasleei beren hautaketan lagunduko dieten on line tresna batzuez gain. Tresna horien artean bilatzaile ahaltsuak egongo dira, bilaketa titulazioka edo unibertsitateka egingo dutenak; baita orientazio test bat ere, ikasle bakoitzaren profilararekin zein titulazio datorren bat aholkatzeko.

“OrientaUniversia” Azokan informazio ugari aurki daiteke, horien artean, titulazioei edo gutxieneko notei, kirol/kultur elkarte nahiz jarduerari, hiritik datozen ikasleentzako ostatu posiblei, dokumentazioaren deskargeri eta ikasle ohien esperientziei buruzkoa; unibertsitate bakoitzak proposatutako inkestak egiteko aukera ere ematen du erakustokiak duen auditorio birtualean bideoak ikusteko eskaintzen duen aukeraz gain.

Interesa duenak bekei, ikasketak atzerrian egiteko aukerari edo selektibitateari eta unibertsitateko bizitzaren inguruko edozein zalantzari buruzko aholkuak eta galdera ohikoenak ere aurkitu ahal izango ditu.

Azoka horretan, erabilgarri dagoen hezkuntza-eskaintza adieraziko dute zati handi batean; ikasleak “OrientaUniversia” atarira eguneko 24 ordutan sartu ahal izango dira eta nahi duten informazioa eskuratu ahal izango dute modu azkar eta erraz batean inora mugitu beharrik gabe.

Pasa den maiatzaren 24an Universia eta EducaRed-ek sinatutako lankidetzak-akordioaren arabera, Telefónica Fundazioak sustatutako hezkuntza-atari hori jada hasi da bere ikastetxeen sarean “OrientaUniversia” Azokaren berri zabaltzen.